

**Beste elkartasun ekintza bat**

**EROSKI -K MARTXAN JARRI DU JOSTAILUAK  
BILTZEKO KANPAINA BAT GURUTZE GORRIAREN  
ALDE**

- Ekimen honekin, dei egiten zaie bezeroei elkartasuna erakuts dezaten jostailu berriak erosiz eta dendan utziz
- Gurutze Gorria arduratuko da emandako jostailuak gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren familiei banatzeaz
- EROSKI k EAEn duen sare komertzialeko hipermerkatuetan egingo dute bilketa

Elorrio, 2021eko abenduaren 10a.- [EROSKI](#)k martxan jarri du kanpaina bat, bezeroei dei egiteko elkartasuna erakuts dezaten Eguberriak aldera. Ekimenaren bitartez, bezeroek jostailu berriak erosiko dituzte, eta dendan utzi [Gurutze Gorriaren](#) alde; gero, gizarte bazterketa jasateko arriskuan diren familiei banatuko zaie.

EAEko sare komertzialeko hipermerkatuetan gauzatuko dute kanpaina asteburu honetan eta abenduaren 17 eta 18koan saltokiaren arabera. Gurutze Gorriko boluntarioek kanpainaren berri emango diete bezeroei dendetan.

*"Datozen egun seinalatuetan gure bezeroei dei egingo diegu elkartasuna erakuts dezaten kolektiborik behartsuenen alde. Ekintza honekin, asmoa da familien eta batez ere haurren baliabideak indartzen laguntzea, haiek ere jostailu berriez gozatzeko modua izan dezaten Eguberri hauetan", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.*

Gurutze Gorrian enpresekin aliantzak egiteaz arduratzen denak, berriz, Maria Gonzalezek, hauxe esan du: *"Eskerrik asko EROSKIri, elkartasun misio honetan laguntzeagatik; horrela, familiarik zaugarrienen haurrek opariak irekitzeko modua izango dute Eguberri hauetan, eta gainerakoak bezala gozatuko dira".*

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)